



## DIAGPASTO : Artzaintzaren mugaz gaindiko diagnostikoa

Artzaintzaren mugaz gaindiko diagnostikoa.





## Bazkideen

Frantziako udalerriak: Azkaine, Biriatu, Urruña, Ziburu, Sara, Senpere eta Ainhoa. Nafarroako udalerriak: Bera, Etxalar, Zugarramurdi, Urdazubi eta Baztan.

## Helburuak

- Artzaintza zaintzea, inguruneak irekitzeko eta biodibertsitateari eusteko.
- Artzain-jarduerei laguntzea, mendiguneak mantentzeko eta sute-arriskuak murrizteko.
- Udan ganadua larreetan egon dadin laguntzeko behar diren artzain-instalazioak sortzea.
- Dibertimenduzko erabiltzailer-fluxuetatik urrundutako artzain-eremuak identifikatzea.
- Beharrezko erreminta osagarriak zaintzea: nekazaritzako sasi-garbitzeko makinak, erreketak kontrolatuak eta abar.

- Mendia artzaintzaren bidez erabiltzeko ekimenei laguntzea, artzaintza lurraldeko ekonomia-baliabidetzat hartuta, eta artzaintzak etorkizunean jarrai dezan bermatzea.

**Egunak :** 01/06/2022 – 30/11/2023

**Aurrekontua :** 25 000 €

## Proiektuaren ekintzak

- Lurraldeko inbentario orokor bat egitea (deskribapena, erronkak, arazoak), mendiko abeltzain trashumanteei inkestak egiteko (erabilera, premiak...) eta, horrela, artzain-erabileraren mailak eta motak zehazteko.
- Artzain-instalazioei buruzko datu kartografikoen lehenengo bilketa egitea eta mendia erabiltzen duten erreferentziazko pertsonen artean inkestak egitea.

## Emaitzak

Artzaintzaren mugaz gaindiko diagnostikoari buruzko txostena